



GALDAKAOKO IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO EKINTZA PLANA:

GALDAKAOKO TOKIKO AGENDA 21 EKINTZA PLANEKO BERRIKUSPENA



Dokumentuaren izenburua:	GALDAKAOKO TOKIKO AGENDA 21 1 Dokumentua. Diagnostikoaren sintesia.
Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal Laguntza Teknikoa:	UTE Ondoan, S.Coop. Haizea Ikerketa S.L.
Jasotzailea:	Galdakaoko Udala
Parte hartu duten udalak:	Arakaldoko Udala Arrankudiagako Udala Arrigorriagako Udala Etxebarriko Udala Urduñako Udala Orozkoko Udala Ugao-Miraballeseko Udala Zaratamoko Udala Zeberioiko Udala
Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoa	Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal
Orrialdeak:	30
Hizkuntza:	Euskara
Bertsioa:	Behin betikoa
Entrega data:	2012ko iraila



AURKIBIDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA.....	5
AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA.....	7
HELBURUAK	8
LAN PROGRAMA.....	9
ARLO TEMATIKOAK.....	11
EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK	12

LABURPEN EXEKUTIBOA

Jarraian, diagnostikoaren ondorio garrantzitsuenak azaltzen dira:

LURRALDE ALDERDIAK

Galdakao Bilbo Handiko eskualdean kokatzen da, Ibaizabalgo behe bailararen barnean, Ganguren mendilerroaren magalean. Bere **kokapena estrategikoa** da Bilborako pasabide eta sargunea eta Arratia bailararen sarrera buru delarik. 30.000 biztanle ingururekin, 31,7 km²ko azalera, 45-50 metroko altitudea eta orografia gorabeheratsua dauka.



Galdakao UT21 Nerbioi-Ibaizabal mailan lurzoru urbanizaezin gehien duen udalerrria da, hein handi batean baso-landarediaz osatua dago baina bioaniztasun ekologikoaren ikuspuntutik interes berezia duten

guneak ere baditu non kontserbaziorako neurri egokiak ezarri ez gero eta hiri ingurunearekin lotzeko sare on baten bitartez aisialdirako gune bikainak osatu daitezkeen biztanleria naturarekin kontaktuan jarriaz.

Hiri asentamenduen kokapenak bailaran barrena, hauen arteko sakabanaketa eta distantzia ekarri du beti. Bide sarea eta autobusez eta trenez dagoen garraio publikoaren eskaintza egokitzat har badaiteke ere, metroa herrira iristen denean Aperribain, Bengoetxen eta Kurtzean izango dituen hiru geltokirekin lurraldearen egitura hobetuko duela aurreikusten da. Halaber, Galdakao erdigunea bukaerako geltoki batean bihurtu ez dadin eta Usansoloko auzoarekin lotura lortzeko, metroa Galdakao-Usansoloko ospitalera luzatzea ezinbestekoa izango da.

Udalerrri eta eskualde mailan **mugikortasunaren plangintza eta kudeaketan** aurrera egiten ari da, nahiz eta oraindik oinezkoen mugikortasunean, bizikleta sarean eta motordunen sarean hobetu beharreko gauzak egon.



Hasia dagoen **Hiri-antolamendurako plan nagusiaren (HAPN) berrikuspena**, hiri garapen osoaren estrategia bat diseinatzeko aukera ezin hobea da, aparkalekua barne, oinezkoentzako, bizikleta sarearentzako eta motordunentzako mugikortasun egoki bat lortzeko konponbideak begietsi beharko dituelarik. Horrez gain, lurzorua babestuz, beharrezkoak ez diren hazkunde eta hiri hedapenak ekidinez eta **jarduera ekonomikoak ahalbidetuko** dituen lurzoruaren beharrianak asetuz **eraikitako**

herriaren babesa, hobekuntza eta erabilera eraginkorra planteatu beharko da.

Azkenik, balio ekologiko gehien duten eremuen **babesa eta zaintza** jarduerak garatzeko apustu bat egin beharko da.

BALIABIDE NATURALAK, HONDIKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

Galdakao Bilbao Bizkaia Ur Partzuergo barruan dago eta bertatik uraren kudeaketa integrala egiten da.

Zentzu honetan, nahiz eta hornikuntza eta saneamendurako azpiegiturek udaleko gaur eguneko eta aurreikusitako behar izanei erantzuna ematen dieten, beharrezkoa da **banaketa sarearen hobekuntzan lan egitea**. Udalerrrian zehar sakabanatuta dauden biztanleria-kokalekuetara heltzeko behar den sare hedadura handiak zeregin hau zaildu egiten du.

Herriko egitura energetikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri askorena bezala erregai fosilen erabileran oinarritzen da eta ondorioz berotegi efektua eragiten duten gasen isurketa ematen da nahiz eta biztanleko dagoen CO₂ baliokide isurtze tasa, Euskal Autonomia Erkidegoko tamaina bereko herrien azpitik egon.

Nahiz eta azken urteetako hondakinen bilketa selektiboa hobetu daitekeen, **positiboa izan da hiri-hondakin sorreraren bilakaera biztanleko eta urteko**. Beraz, hondakinen bereizketa eta berreskurapena hobetu beharreko gaia da oraindik. Halaber, bilketa pneumatikoak emandako emaitza onak direla eta udalerriko beste eremu batzuetara hedatzea pentsatzen da.



GARAPEN SOZIAL ETA EKONOMIKOA

Galdakaon hirugarren sektoreko jarduerak nagusitzen dira, industri sektoreak beherazko joera nabarmena du, eraikuntza sektoreak ere behera egin du eta lehen sektorea, ia desagertua, jarduera osagarri bezala mantentzen da. Nahiz eta zaila den herri mailan lehenengo sektorean eta industria sektorean eragina izatea, bertako elikagaiak merkaturatzen laguntzea eta enpresen arteko lankidetzeta eta berrikuntza sustatzea jarraitu beharreko jarduera lerroak dira. Merkataritza eta ostalaritza sektoreei dagokionean, metroaren etorrera **aukera** bikaina da eta aprobetxatu beharra dago eskaintza birkokatu eta herriko eta kanpoko bezeroak erakartzeko eskualdeko aisialdi eta merkataritza gunek handiekin lehiatuz.

Halaber, langabezian dauden pertsonen lan-bideratzea eta herriko ekintzaileen enpresa proiektuak sustatzen laguntzeko prestakuntza eta enpleguko baliabideek garatutako funtzio eta ekintzen inguruko hausnarketa bat egitea beharrezkoa da.

Gizarte zerbitzu eta ekipamendu eskaintzak, dagoen **eskariari erantzuna** ematen dio momentuz.

Hala ere, gaur egungo testuinguru ekonomikoan **biztanleria zaharkitu** bati erantzuna emango dion laguntza maila eta gizarte zerbitzuak mantentzea erronka bat da.

Nahiz eta azken urteetan Galdakaoko euskaldun biztanleriak gorantz egin duen, euskararen erabilera baxua da eta honek euskararen ezagutza eta eguneroko erabilera bultzatzen dituzten politikak garatzen jarraitu beharra dagoela adierazten du.

Kirol eta kultura ekintzak garatzeko guneen egokitzapena, berrikuntza, partekatzea eta hauek balioan jartzea da udalaren erronka nagusienetariko bat.

Nahiz eta kirol eta kultura azpiegiturak ugariak eta anitzak izan, arazoak hauteman dira kultura eta gizarte lokal eta ekipamenduen eraginkortasunean eta baita kirol ekipamenduen erabileraren antolakuntza eta kudeaketan ere. Aurrekoaz gain, eskaintza hobetuz izateko eta antolatutako ekintzetan gizartearen erantzun maila on bat egoteko Udala eta gizarte eragileen artean **ekintza koordinatuen garapena indartu beharra hauteman da**.

SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNE KOORDINAZIOA

Parte-hartze kultura eta komunitate kontzientzia finkatzen lagunduko duten egitura parte-hartzaile berrien aurrerakuntza prozesu hasi berria izan arren emaitzak ematen ari da dagoeneko.

Herriko jasangarritasun prozesuaren oinarria **sentsibilizazioa, prestakuntza eta eguneroko bizitzan praktika egokien ezarpenaren bitartez** biztanleria eta tokiko administrazioaren ohiturak aldatzea da.

Garatzen ari diren zenbait politiken zeharkakotasunak **departamentuen arteko koordinazioa eta elkarlana** are gehiago indartzeko dagoen beharra agerian jartzen du.

AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

2004 urtean Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerrriak (Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Urduña, Orozko, Zaratamo eta Zeberio) **Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal** sortu eta Tokiko Agenda 21 prozesuak era bateratuan diseinatzeko asmoz elkartu ziren.

2006 eta 2007an diseinu fasea behin amaitu ondoren (diagnostikoak idaztea eta Ekintza Planak onartzea) eta Aalborgeko Gutuna sinatu ondoren, udalerrri guztiek **Udalsarea 21**eko partaide izatera pasa ziren, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea.

2011 urtean Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek **Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoa** abian jartzen du. Hamaika udaletxei (lehen aipaturikoak gehi Basauri) eta Nerbioi-Ibaizabalgo eskualdeko herritarrei orokorrean, zerbitzua, baliabideak eta ekintzak eskaintzeko asmoz sortutako ekipamendua da.

Tokiko Agenda 21a abian jarri denetik udalerrietan eskualde mailako zenbait proiektu eta ekintza garatu dira. Ondoren Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren zerbitzu nagusienak aurkezten ditugu, 5 lan esparruetan banaturik:

1. **Tokiko Agenda 21:** Tokiko Ekintza Planen gauzapenean, ezarpenean eta ebaluazioan laguntza.
2. **Industriako Agenda 21:** Eskualdeko enpresetan ingurumen hobekuntzarako laguntza.
3. **Eskolako Agenda 21:** Eskualdeko eta udalerriko ikastetxeen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza Programa.
4. **Hondakinen kudeaketa:** Eskualde mailako bilketa zerbitzua: etxeko olioak, inpresio hondakinak eta mugikorrek; pilak eta akumuladoreak; erabilitako arropa eta *probetxagarriak diren bestelako etxeko objektuak*.
5. **Mugikortasun iraunkorra:** Eskualdeko Iraunkortasun Planean aurreikusitako ekintzen ezarpena.

6 urte igarota 1go Ekintza Plana onartu eta bere gauzapena hasi zenetik, Udaletxeek Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren bitartez, berrikuspen prozesua abian jartzea erabakitzen dute, **aurreko plana ordezkatuko duen eta udalerriek dituzten behar eta baliabideekin bat etorriko den plan berri bat egiteko**.

Testuinguru honetan eta berrikuspen prozesu honen lehen fasearen ondorioz, 2012 urtea bitartean Galdakaoko Udalak udalerriko *Gizarte, ekonomia eta ingurumen Diagnostikoa* egin du.

HELBURUAK

Berrikuspen prozesuaren **helburu nagusia** datozen 8 urteetan udalerrian garatuko diren lehentasunezko jarduera esparruak barne hartzen dituen Tokiko Ekintza Plan bat definitzean datza. Gainera, zera lortu nahi da:

- Planaren helburuak eta ekintzak iraunkortasunarekin erlazionaturiko legeriaren, teknikaren ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren bilakaerara egokitzea.
- Planaren ezarpen maila nolakoa izan den arabera Plana gaika egokitu.
- Plana udalerrriaren giza, ingurumen eta ekonomia bilakaerara egokitu.
- Planean aurretik kontutan hartu ez ziren gai tematiko berriak sartu.
- UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo udalerrien artean egindako eskualde mailako hausnarketaren bitartez Eskualde mailako Ekintza Plan bat zehaztu.

Berrikuspenaren lehen fasean, **helburu zehatzak** hauek dira:

- Lurralde, ingurumen, komunikazio, parte-hartze eta gai sozio ekonomikoen inguruko azterketa bat egin ondoren balorazioa egiteko.
- Balorazio horretatik abiatuta, Ekintza Plan berriaren lehentasunezko jarduera esparruak ezarri.
- Aurreko Planean indarrean dauden eta garrantzitsuak diren ekintzak identifikatu.
- Udalerriko eta udalaz gaindiko planak eta programak identifikatu Plan berriari sartu ahal izateko.
- Helburu estrategikoak zehaztu Plan berriaren formulazioa egiteko.
- Interesa duten gizarte eta ekonomia eragileen eta herritarren ikuspegia txertatu.
- Gaian eskumenak dituzten politikari eta teknikarien balioztatzea bermatu.

LAN PROGRAMA

Tokiko Ekintza Planen berrikuspena egiteko erabilitako oinarrizko metodologia “*EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa*” oinarritzen da. Gida horrek dionari eutsiz, Tokiko Ekintza Plan baten berrikuspenak honako faseak ditu:

0. Zehaztea eta abian jartzea.
1. Oinarrizko informazioa biltzea eta barneratzea.
2. Sintesi Diagnostikoa.
3. Planaren Formulazio estrategikoa.
4. Ekintzen ezaugarritzea.
5. Plana kudeatu, jarraipena egin eta onartzeko lanabesen diseinua.

Metodologia hori aintzat hartuta, **lan teknikoa, barne koordinazioa eta parte-hartzea eta herritarren parte-hartze ekintzak** kontutan hartu dituen **Lan Programa** bat garatu da:

- o **Lan teknikoak:** Aholkulari Taldeak burutuak proiektuko Zuzendaritza Politikoa eta Teknikoa eta teknikariek elkarlanean.
- o **BARNE koordinazio eta parte-hartze lanak:** Udal teknikariek bakarkako elkarrizketen bitartez edo talde lanaren bitartez Hirigintzako Batzordearen bitartez.
- o **HERRITARREN PARTE-HARTZE ekintzak:** herritarrei zuzendutako pertzepzio inkesta baten bitartez, web galdetegi baten bitartez eta Herritarren parte-hartze Foroaren bitartez (*herritarren ekarpenak dokumentuan espresuki aurretik eta kurtsibaz doan (*) bitartez seinalatu dira.*)

Ondorengo taulan zehazte eta abaian jartze eta diagnostikoaren gauzapenean **garatutako parte-hartze ekintzak** xehetasun gehiagorekin deskribatzen dira.

BARNE PARTE-HARTZEA	HELBURUA / GARAPENA
Hirigintzako Batzorde Informatiboa (2011ko Abenduak 20)	Proiektuaren aurkezpena eta hau garatzeko metodologia.
Udal teknikariak (2011ko Abendua)	Proiektuaren aurkezpena eta hau garatzeko metodologia.
Udal teknikariak (2012ko Otsaila)	Eskuragarri dagoen informazioa identifikatu eta biltzeko elkarrizketak, udal egoeraren balorazioa beraiei dagokien lan eremuetan eta ahalezko jardura lerroak identifikatu.
Udal teknikariak (2012ko ekaina-uztaila)	Diagnostikoaren zirriborroaren kontrastea
Hirigintzako Batzorde Informatiboa (2012ko urriak 16)	Diagnostikoko ebaluazio orokorra eta lehentasunezko jardura esparruen aurkezpena eta kontrastea.
KANPOKO PARTE-HARTZEA	HELBURUA / GARAPENA

Web galdetegia (2012ko Urtarrila–Ekaina)	Web bidez eskuragarria egon den galdetegia diagnostikoan aztertzen diren gai nagusien inguruan udalerraren egoera zein den baloratzeko.
Herritarren pertzepzio inkesta (2012ko Urtarrila–Ekaina)	Eskualde mailan egindako inkesta herritarrek diagnostikoan aztertzen diren gai nagusien inguruan duten gogobetetze maila estatistikoki zehazteko.
Herritarren parte–hartze Foroak (2012ko Apirila)	Udalerriko diagnostikoaren ondorio nagusiak kontrastatzeko herritarren parte–hartzeko hiru foroen gauzapena.


ARLO TEMATIKOAK

Diagnostikoa ondoren aurkezten ditugun 17 arlo tematikoz osatzen da:

LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK 1. Lurraldea eta plangintza 2. Natura eta bioaniztasuna 3. Mugikortasuna eta garraioa	SENTEBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA BARNE KOORDINAZIOA 11. Komunikazioa, sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea 12. Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna.
NATUR BALIABIDEAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA 4. Ura 5. Hondakinak 6. Energia 7. Ingurumen kalitatea (atmosfera, zarata eta lurzorua) 8. Arriskuaren kudeaketa eta jarduera ekonomikoak 9. Erosketa publikoa eta udal administrazioa ingurumen kudeaketa 10. Klima aldaketa eta inpaktu orokorra	GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA 13. Biztanleria 14. Garapen ekonomikoa eta lan merkatua – Ekonomia egitura eta jarduera maila – Lehen sektorea – Bigarren sektorea – Zerbitzuen sektorea – Turismo eta ostalaritza sektorea – Enplegua eta lan merkatua 15. Ongizatea eta gizarteratzea – Zuzentasuna eta gizarte zerbitzuak – Genero berdintasuna – Elkarbizitza – Osasuna eta osasun zerbitzuak – Telekomunikazioak eta IKT-etara irismena 16. Hezkuntza, euskara, kultura eta kirola 17. Etxebizitza

Alor tematiko bakoitza azpi-alorrez osatua dago eta hauetako bakoitzean **diagnostikatutako alderdi klabeak kontutan harturik balorazio kualitatiboa eta orokorra egin da**, helburua honakoa da:

- Beste azpi-alorrekin konparatuz era positiboagoan edo negatiboagoan baloratzen diren azpi-alor horien inguruko ikuspegi orokorra eskaini.
- Lehentasunezko jardura esparruen identifikazioa erraztu.
- Udaletxeko teknikari, politikari eta herritarrek orokorrean diagnostikoa irakurri eta eztabaidatu dezaten sustapena egin.

BALORAZIOA	
 <p>Ez baloragarria</p>	Balorazioa egiteko irizpideak <i>“EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa”</i> agertzen dira.





Diagnostikoko arlo tematiko bakoitzaren edukia, balorazioa eta lehentasunezko jardura esparruak **FITXA TEMATIKO** gisa jasota daude




EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK

LURRALDE ALDERDIAK			
Azpi eremuak	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
1. LURRALDE ETA PLANEAMENDUA			
1.1. Lurralde Eremua	😊	Galdakao Bilbo eskualdean kokatzen da, kokapen estrategikoa du Bilborako pasabide eta sargunea izanik eta Arratia bailarako sarrera buru delarik. Gaur egungo komunikabiderako azpiegiturak, Ibaizabal ibaiaren bidea, bailarako biztanleria eta industria dentsifikazioa, bizilekuen sakabanaketa eta udalerriko lurzoru urbanizaezinaren orografiak Galdakaoko lurralde eremua zehazten dute.	Udal eskumena <ul style="list-style-type: none"> HAPNaren berrikuspenean jasangarritasun eta antolatze irizpideak kontuan hartu. Kanpoan garatzeko eta aisia ekintzak balioan jartzeko eta egokitzeko eremu eta ibilbideak, lurraldearen gozamenerako, bai oinezko eta baita bizikleten bitartez Hiri ingurunean eta inguruan gune berdeak balioan jarri eta egokitu baita aire librean oinezko eta bizikletek aisialdiko ekintzak garatu eta lurraldeaz disfrutatzeko ibilbideak ere. Hondatutako guneak berreskuratzea eta hirigintza zaharkitua dagoen eremuak birsortzea. Udalerriko ondare arkitektonikoa babestu eta balioan jartzea Udalaz gaindiko eskumena <ul style="list-style-type: none"> Pasabide berdeak bidezko pasabide moduan sustatzea elementu naturaletan oinarrituz, intereseko guneak beraien artean eta gune nagusiarekin lotzen dituelarik. Ibaiertzak berreskuratzea. Udalerriko ondare arkitektonikoa babestu eta balioan jartzea
1.2. Udal Lurzoruaren egitura organikoa eta erabilera	😊	Azken urteetan lurzoru artifizialaren portzentajeak gora egin du, Udalsarea mailan 25.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrien batez bestearen azpitik dagoelarik.	
1.3. Hiri egitura eta ehundura	😐	Biztanleriaren % 25a erdigunetik urrun dauden auzoetan bizi da, elkarren arteko lotura zailtasunekin batez ere Aperribai eta Usansoloren kasuetan, antolamendu arazoak ekarritik.	
1.4. Hiriko eta hiri inguruetakoa berdeguneak	😐	Gune berdeek, parkeek eta lorategiek okupatzen duten azalera, Bizkaia eta Euskal Autonomia Erkidegoaren batz bestekoaren gainetik dago, baina UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo (42 m²/biz.) batez bestekoaren azpitik. Dena dela, biztanleriarentzat eskuragarri dauden aisialdi guneak eta gune berdeen portzentajea areagotzea beharrezkotzat jotzen da.	
1.5. Hiri paisaia eta gune hondatuak	😐	Ibai inguruko industri guneen birgaitzea beharrezkoa da hondatutako eremuak berreskuratzerako. Ibaizabal ibaiko erriberaren egoera hobetu daiteke.	
1.6. Ondare arkitektoniko eta kulturala	😊	Galdakaok interesa duen ondare arkitektonikoa dauka, 2 monumentu, 14 ustezko arkeologi elementu eta 33 ondare elementu arkitektoniko hurrenez hurren.	
1.7. Lurralde eta sektore antolamendua	😐	Bilbo Metropolitanaren Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatikoa Plana 2006 urteko azaroan onartu zen eta Galdakaorako helburu estrategikoak eta herrian eragina duten ekintza egituratzaileak ezartzen ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sarearen Lurralde Sektore Planak Galdakaorako ekintza nagusi bezala metroaren luzapena barneratzen du. Jarduera ekonomikoko eta ekipamenduetako sorkuntza publikoko Lurralde Sektore Planak (2004) Galdakao merkataritzarako ekipamendu handiak kokatzeko herri nagusi	

LURRALDE ALDERDIAK			
Azpi eremuak	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
1.8. Hiri antolamendua		<p>bezala katalogatzen du (A mailakoa).</p> <p>Gune hezeen antolamendurako Lurralde Sektore Planak (2004) III Taldeko bost hezegune identifikatzen ditu, non hegazti faunak erakartzeko neurriak hartu daitezkeen.</p> <p>Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Sektore Planak (2010) udalerriko 21,85 Ha. nekazaritza eta abeltzaintza aldetik balore estrategiko altua duen lurzoru bezala katalogatzen ditu eta 400 Ha. inguru trantsiziozko eta nekazal paisaia bezala.</p> <p>EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak Galdakaon degradatutako bi ibaiertz kokatzen ditu “Suspertu beharreko ertzak” atalean kokatzen ditu eta aktiboki leheneratzea gomendatzen du.</p> <p>Indarrean dagoen HAPNa berrikuste prozesuan dago, dagoeneko diagnostikoa eginda dago eta 2012ko udazkenerako aurrerapena aurkeztuko da. HAPN berria Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren berrikuspenarekin batera garatzea aurreikusten da, jasangarritasun irizpideak kontuan hartuko dituelarik.</p>	
2. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA			
2.1. Ohiko mugikortasun beharraren ezaugarriak		<p>Barne mailako joan-etorrietan oinezkoen mugikortasuna nagusitzen da. Eskualdetik kanpoko joan-etorrietan, autoaren erabileraren goranzko joera nabarmentzen da eta garraio publikoaren beranzkoa. Udalerritik kanpo datorren mugikortasunean autoaren erabilerak behera egin du.</p>	Udal eskumena
2.2. Mugikortasunaren kudeaketa eta antolaketa		<p>Biztanleriaren gehiengoa Bilbora joaten da lana egitera eta 16 urte baino gehiagoko biztanleriaren bi herenak herritik kanpo egiten ditu bere ikasketak, eskualdeko batez bestekoaren azpitik.</p> <p>2011 urtean egindako Mugikortasun Jasangarriaren Eskualdeko Plan eta “Bizikletetzako bideak antolatzeko plangintza eta Galdakaoko udalerrian bizikletaz ibiltzeko hiri antolaketa”, mugikortasunerako neurri orokorrak eta 22,5 Km luzerako bizikletentzako bide sarea proposatzen dituzte baina ez dago irizpide guztiak barneratzen dituen eta jarduera estrategikoa hiri garapenerako estrategia bateratu baten barnean definitzen duen Udalerriko Mugikortasun Jasangarriko Planik.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hiri garapenerako mugikortasun jasangarriaren estrategia alderdi guztietan (bizikletentzat, oinezkoentzat, gurpildunentzat, e.a.) antolatu, garatu eta bateratu. • Udalerria egituratuko duen garraio publiko sistema bat sustatu. • Biztanleriak udalerriko gune berdeekiko dituen loturak eta sarbideak hobetzea. • Bide publikoko erabiltzaile guztien artean bizikleta sareen erabilera seguru eta arduratsu baten erabilera bultzatu. • Bizikletaren erabilera garraio bide bezala sustatu. • Herrian altuen kokatuta dauden auzoen irisingarritasuna hobetu. • Landa bideak berreskuratu, mantendu eta seinalatzatu. • Herrian aparkatzeko dagoen arazoa konpontzeko erantzuna barneratu udalerriko mugikortasun jasangarriko estrategia bateratu batean. • Ibilgailu astunentzako aparkatzeko guneak egokitu eta/edo Eretxes hobetu.
2.3. Lurraldeko loturak eta irisingarritasuna			
2.4. Garraio publikoa		<p>Galdakao inguruko herriein hiriarteko garraioaz lotzeko dituen loturak egokiak dira nahiz eta hobetu beharreko aspektuak egon. Metroaren etorrerak egoera hau hobetuko du, batik bat udalak egindako eskariari erantzuten bazaio eta metroa Usansolora heltzen baldin bada ospitalearekin dagoen mugikortasuna eta era berean bertako auzokideen</p>	
2.5. Oinezko eta			

LURRALDE ALDERDIAK			
Azpi eremuak	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
<i>bizikleten sareen ezaugarriak</i>		mugikortasuna hobetuko da. Hiriguneak eta herriko eremu berde nagusietara heltzeko lotura eta irisgarritasun baldintzak ez dira egokiak.	<p>Udalaz gaindiko eskumena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Metroa Galdakaoko ospitalera hel dadin bultzatu Galdakaoko erdigunea bukaerako geltoki bihurtu ez dadin. • Biztanleriaren beharrianetara egokitua dagoen garraio publikoaren eskaintza bat mantendu. • A8 autobidearen hirugarren erreila herri barruko bide moduan barneratu eta gaur egun ezinezkoa den noranzkoan A8tik eta A8rainoko sarbidea erraztu. • Ospitaleko aparkalekua hobetu. • Biztanleria mugikortasun jasangarriari buruz sensibilizatu.
<i>2.6. Bide sarea</i>		Oinezkoentzako guneak definitzea eta garatzea eskatzen da. Pixkanaka " Bizikletentzako bideak antolatze ko plangintza eta Galdakaoko udalerrian bizikletaz ibiltzeko hiri antolaketan " agertzen diren ekintzen garapenak, bizikletentzako sarearen gabezia konponduko du.	
<i>2.7. Landa bideen sarea</i>		Hirigune baten gabeziak beharrezkotzat jotzen ditu elkarbitzita formulak, biztanleriaren komunikazio eta sensibilizaziorako estrategia eta jokaera arduratsuak bultzatuz.	
<i>2.8. Aparkalekua</i>		Gaur egun, mugikortasun jasangarriekin eta bide hezkuntzarekin loturiko sensibilizazio ekintzak garatzen dira. Altuen kokatutako auzuneen irisgarritasun baldintzak hobetzeko aukerak aztertu beharra dago.	
<i>2.9. Motorizazio eta ibilgailuen atala</i>		Landa bide batzuk egoera eskasean aurkitzen dira eta seinaleztatu gabe daude.	
<i>2.10. Istripuak</i>		Herrian dauden aparkatzeko arazoek udalerriko mugikortasun jasangarriko estrategia bateratu batean barneratuta dagoen erantzun bat behar dute. Halaber, Usansolon ibilgailu astunen aparkalekuak eragindako arazoak daude.	
<i>2.11. Salgaiak</i>			
<i>2.12. Bide hezkuntza</i>			
3. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA			
<i>3.1. Natura eta paisaia balioak</i>		<p>Galdakaoko landaretza baso-landarediaz osatuta dago gehienik. Bertako landaredia, udalerriko azaleraren % 20a, hariztiz eta ibaiertzeko landarediaz osatua dago batez ere.</p> <p>Komunitate mailan garrantzia duten 6 habitat ezagutzen dira, hauetatik bi Komunitate mailan lehentasunezko interesa dute.</p> <p>Gune hezeen antolamendurako Lurralde Sektore Planak (2004) III Taldeko bost hezegune</p>	<p>Udal eskumena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Herriko ingurune naturala eta paisaia ezaugarritzeko ikerketak egin. • Interes ekologikoa eta paisajistikoa duten guneak eta elementuak babestu eta berreskuratu.

LURRALDE ALDERDIAK			
Azpi eremuak	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
3.2. Sistema naturalen eta paisaien kontserbazio egoera		<p>identifikatzen ditu.</p> <p>Nahiko intensifikatuta eta ezaugarrituta ez dauden natura eta paisaia aldetik interesa duten guneak daude.</p> <p>Mehatxaturik dauden espezien euskal katalogoan, Galdakaon agertu daitezkeen hurrengo espeziek identifikatzen dira: ur ipurtatsa (desagertzeko zorian), baso-igel jauskaria eta kakalardo Longicornio (kaltebera) eta baso igel iberiarra, Schreiber muskerra eta gorostia (garrantzi berezikoak).</p>	<ul style="list-style-type: none"> • HAPN berrian naturarekin loturiko intereseko lekuak babesteko egiturak sortu. • Gizarte erabilera duten gune naturalak ordenatu. • Herritarren parte-hartzea eta inplikazioa bilatuz, ingurugiroarekin loturiko heziketa eta zabalkunderako ekintzak areagotu. • Gune naturalen eta erdi naturalen kudeaketa egokia sustatzea. <p><i>Udalaz gaindiko eskumena</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Obra eta azpiegituren garapenean, ingurunea babesteko eta kontserbatzeko neurriak ezarri.
3.3. Jardueren eragina eta arriskuak nekazaritzan zein natur ingurunean		Galdakaok flora inbaditzaile espezieen eta fauna bitxi inbaditzaileen inbasio maila altua dauka: bisoi amerikarra, karramarro amerikarra, karpa, eguzki arraina, lutxoa, zamo txikia eta apoarmatu amerikarra. Aretxabalgana eta Lekubaso errekek kontserbazio maila ona eta balio ekologiko altua dute hala ere puntu honetan inguru naturalaren kalitate baxua hautematen da Ibaizabal ibaiaren egoera ekologikoak ingurumen helburuak betetzen ez bait ditu.	
3.4. Babestutako naturguneak		Galdakaon ez dago Babes Bereziko Lekurik, baina badago babes berezia duen udal azalera eta udalerrri guztiko azaleraren % 6,93a ordezkatzeko du.	
3.5. Natur ingurunearen antolamendua eta kudeaketa		<p>Indarrean dagoen HAPN-ak ez du babeserako egitura eguneraturik jasotzen. HAPN berriak habitat eta interesa duten gune naturalen (bertako baso, gune hezeak eta errekek) babes egiturak barneratu beharko ditu eta basoko ekoizpenari dagokionean iraunkortasun irizpideak ezarri.</p> <p>Ondare naturala balioan jartzeko ekintzak egin dira, Altamirako ibilbidea bezalakoak.</p>	




BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA			
Azpiegitura	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
4. URA			
4.1. Ur horniketa		Bigarren mailako banaketa sarearen mantentze eta kontrola udalak kudeatzen du , estaldura maila nahikoa izanik eta udalerrri ia gehiena barneratzen duelarik.	Udal eskumena <ul style="list-style-type: none"> Hornidura sarearen etekina hobetu, bere galerak eta ezkutuko erabilerak azaleratuz. Uraren erabileran eraginkortasuna sustatzen duten tresnak bultzatu eta garatu eta ez edateko urari beste erabilera batzuk eman. Ur baliabideari eta inguru urtarreko bioaniztasunari buruzko sentsibilizazioa
4.2. Edateko ura banatzeko sarea		Sarea etengabeko berriztatze prozesu batean egon da non ia fibrozeментu guztia kanporatu den. Hala ere, bere hedadurak mantentze eta kontrol egoki bat egitea zailtzen du eta honek hornidura sistemaren errendimendu indize baxua ekartzen du, 2010 urtean % 44 izanik, EAE-ko (2007-2010) II Ingurumen Esparru Programan % 25 ur galerak ez edukitzeko konpromisoa ez delarik betetzen.	
4.3. Eskaera eta kontsumoa			
4.4. Saneamendua eta arazketa		Ur kontsumoa 2010 urtean 106,6 litro/biz./eguneko izan zen, UT21 Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko batez bestekoaren (112,7 litro/biz./egun) azpitik , joera hori mantendu beharra dagoelarik. Etxeko sektoreak, kontsumoaren % 42,6a ordezkutzen du, % 29 industrialak sare nagusian eta % 19,6 merkataritza eta industriaren bigarren mailako sarean Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako ildoak jarraituz ur baliabidearekin erlazioaturiko bioaniztasuna ezagutarazteko prestakuntza eta dibulgazio ekintzak antolatzen dira.	
4.5. Uraren zikloaren araudia eta kudeaketa			
4.6. Sentsibilizazioa			
4.7. Uraren Kalitatea			
5. HONDAKINAK			
5.1. Hiri hondakinak sortzea		Sortutako herri hondakinak (bereiztutakoak kontuan hartuz), azken hamarkadan maila berean mantendu dira , 2010 urtean 12.327.24 Tn sortu direlarik, 2001 urtean baino % 3,81 gutxiago eta urte horietako bataz bestekoa baino %1 gutxiago.	Udal eskumena <ul style="list-style-type: none"> Hondakinen sortze tasak gutxitu, kontsumo jasangarri bat sustatuz. EAEko helburuak lortu arte bilketa selektibo tasak areagotu. Galdakaoko beste auzo batzuetara bilketa pneumatikoa zabaldu. Hondakin organikoen bilketa berezia aztertu eta konposta sustatu. Kontrol gabeko isurketen garbiketa eta jarraipena.
5.2. Gaikako bilketa		2001 eta 2010 urte bitartean bereiztutako bilketa % 33,71 igo da 2010 urtean, hiri hondakin % 21,43a ordezkutzen duelarik, UT 21 Nerbioi-Ibaizabalgo datua parekoa da, % 21,3, baina Udalsarea 21eko (2007) datua baino baxuagoa % 28 eta EAEko (2007-2010) II Ingurumen Esparru Programan ezarritako konpromisoa % 35 baino baxuagoa ere.	
5.3. Hiri hondakin kudeaketa			
5.4. Hiri hondakin tratamendua		Kartoia, beira eta ontzien birziklapen portzentajeak UT21 Nerbioi Ibaizabalgo batez bestekoaren azpitik daude eta boluminosoen portzentajea aldiz gainetik.	






BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA			
Azpiegitura	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
5.5. Hiri hondakinei buruzko ordenantzak eta zergak		Frakzio organikoaren bilketa ez da ezarri eta momentuz ez da bere ezarpenik aurreikusten. 2011ko maiatzan jarri zen martxan hondakinen bilketa pneumatikoa (1.go fasea) Kurtzea, Urreta kalean eta Tximelarre Goikoan eta jasotako emaitzak positiboki baloratzen dira.	<ul style="list-style-type: none"> Txakurren hondakinak jabeek batu ditzaten sensibilizazioa egin. Udaletxeko ekintzatik eratorritako hondakinen kudeaketen jarraipen sistema bat ezarri. Kontzientziazio eta sensibilizazio ekintzak jarraitu eta indartu.
5.6. Sentsibilizazioa		Galdakaoko udaletik eta baita Eskualdeko Jasangarritasun Bulegotik ere hondakinen sorrera eta kudeaketari buruzko sensibilizazio ekintzak garatu dira. Hondakinen kudeaketa egokia, Eskola Agenda 21 programaren bitartez ikastetxeko politikan barneratua dago, bost ikastetxetan garatzen delarik.	Udalaz gaindiko eskumena
5.7. Hondakin industrialak		IHOBEK emandako datuen arabera, hondakin arriskutsuen sorrera 6 aldiz biderkatu da 2003 eta 2007 urte bitartean. Enpresa gehienak ekoizle txikiak dira, urteko 10 Tn baino gutxiago sortzen dute eta % 20 gutxi gora behera, kopuru hori baino gehiago kudeatzen dute. Galdakaoko enpresen % 37,84ak bakarrik dauka hondakin arriskutsuen ekoizle txiki edo handiaren izen ematea/baimena.	<ul style="list-style-type: none"> Ekoizle txikien artean hondakin arriskutsuen kudeaketaren hobekuntza bultzatu. Industria enpresetan legezkatze prozesuak sustatu.
5.9. Eraikuntzako hondakinak			
5.10. Bide garbiketa		Kale garbiketa , udaletxeak kanpo enpresa bati kontratatu dio, kaleetako garbiketa egokia delarik.	
5.11. Udal erakundeetako hondakinak		Udaletxeak ez du kontrolatzen udaleko zerbitzu desberdinetan sortzen diren hondakin kopurua, bai bere kudeaketa ordea, indarrean dagoen legediarekin bat datorrelarik.	
6. ENERGIA			
6.1. Egitura energetikoa		Energia iturri berriztagarrien presentzia eskasa da gaur egun. Udalerriak 2010 urtean 68,50kWko potentzia fotovoltaikoa dauka 10.000 biztanleko, UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo batez bestekoaren gainetik, 24,35 kW. Bestalde, eguzki plaka termikoen azalera 19,62 m ² koa da 10.000 biztanleko, UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo batz bestekoaren azpitik, 87,7 m ² .	Udal eskumena
6.2. Energia berriztagarrien ekoizpena		Urteroko gas naturalaren kontsumoa eta kontsumo elektrikoak behera egin dute azken urteetan, industria sektorea nagusitzen delarik nahiz eta etxeko kontsumoan goranzko joera hauteman den eta industri eta merkataritza sektorean beheranzkoa.	<ul style="list-style-type: none"> Etxeetan aurrezte eta eraginkortasun energetikoa sustatu: informazioa eta sensibilizazioa. Kalitate energetiko baxua duten eraikinen eta etxebizitzien berriztapena sustatu. Proiektu berrien eta erreformen ziurtagiri energetikoa sustatu. Energia berriztagarriko sistemen instalazioa bultzatu, bai arlo publikoan eta
6.3. Tokiko administrazioen energiaren		2009 eta 2010 urte bitartean udal erakundeetako gas naturalaren kontsumoak gora egin	

BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA			
Azpiegitura	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
<i>kontsumoa eta kudeaketa</i>		du eta argi-indarrarenak behera.	baita pribatuan ere.
<i>6.4 Udal ekipamenduen kontsumoa</i>	☹️	Udaletxean ikuskaritza energetiko bat egin da eta eraginkortasun energetikorako neurriak hartu dira. Halaber, hilero , fakturen analisisen bitartez, instalazio bakoitzaren kontsumo energetikoaren azterketa egiten da.	<ul style="list-style-type: none"> Garrantzia duten udal eraikinetan eta ekipamenduetan ikuskaritza energetikoak osatu eta eraginkortasun neurriak hartu. Udal eraikin berrietan eraginkortasun energetikoa bultzatu.
<i>6.5 Herriko argien kontsumoa</i>	😊	Kanpoko argiterian iraunkortasun energetikorako neurriak hartu dira, 2009 eta 2010 urte bitartean kontsumoaren beherakada bat eman delarik, ia %10 jaitsiz.	<ul style="list-style-type: none"> Udal ibilgailuak aldatu edo/eta gehitzaerakoan ibilgailu hibrido edo elektrikoak barneratu, ahal izan ezker.
<i>6.6. Udal ibilgailuen kontsumoa (COM)</i>	☹️	Udaletxeko ibilgailuen urteko batez besteko kontsumoa kalkulatu da 4,47 m ³ gasolina eta 141,78 m ³ gasolioa, gaur egun ez dago ibilgailu misto edota elektrikorik .	<ul style="list-style-type: none"> Komunikazio eta sentsibilizazioa garatu eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien gaitetan.
<i>6.7. Energia kudeatzeko araudia</i>	☹️	Energiarekin loturiko sentsibilizazio, komunikazio eta parte-hartze ekintzak, Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoaren bitartez eskualde mailan antolatzen dira.	
<i>6.8. Sentsibilizazioa</i>	☹️		
7. INGURUMENAREN KALITATEA ATMOSFERA, AKUSTIKA ETA LURZORUAK			
<i>7.1. Atmosferara egindako isuriak</i>	😊	Airearen kalitatea ona da , Ardanza Lehendakariaren Parkean 2009 urtean egindako neurketetan ez dira mugak gainditu eta datu onak jaso dira Arrigorriaga eta Basauriko behatokitian.	Udal eskumena
<i>7.2. Airearen kalitatea</i>	😊	Diagnostikoa idazterako garaian, Galdakaoko Zarata mapa onartu da. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri lanak eta garraio Sailak , 2001 urtea geroztik Bizkaiko errepideen zarataren aurkako Plana garatzen ari da Zarataren Mapa estrategikoen eta erlazonaturiko Ekintza Planen bitartez.	<ul style="list-style-type: none"> Zarataren kontrako babesa kudeatu eta antolatu. Bideragarritasun irizpideak jarraituz eta berreskurapen kostua kontutan hartuz lortuko den gizarte onura kontutan hartuz titulartasun publikoa duten lurzoru poluituak berreskuratu.
<i>7.3. Kalitate akustikoa</i>	😊	Plan honen barruan AP8, N-634, N-637, N-240, BI-737 eta BI-625 , errepideak daude.	<ul style="list-style-type: none"> Lurzoruaren kutsadura saihestu eta berreskuratzeko eta airearen eta zarataren kalitatearekin erlazonaturiko formakuntza eta sentsibilizazio ekintzak garatu.
<i>7.4. Kalitate akustikoaren kudeaketa</i>	☹️	Aisialdirako eta merkataritzako ekintzak , zarata eragiten dute eta eragozpenak sortzen dituzte biztanleriarengan, noizbehinka kexa edota salaketa bat gauzatzen delarik. Industriak industrialdeetan eragindako zaratak ordea, ez du eraginik biztanleriarengan.	








BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA			
Azpiegitura	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
7.5. Lurzoruaren kalitatea		Kontuan hartu behar dira eraikiko diren azpiegiturek zarata arloan izango duten eragina (Metropoli hegoaldeko saihebidia eta Abiadura Handiko Trena).	
7.6 Lurzoruaren kalitatearen kudeaketa		Udaletxetik ezarritako salaketei eta kexei erantzuna ematen zaie eta beharrezko ikuskaritzak egiten dira. 165/2008 dekretua, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan Galdakaon 132 partzela ezagutzen dira, guztira 1.181.179 m ² azalera hartuz, UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo azaleraren % 14,28 lurzorua kutsa dezaketen jardueraz osatua dago. Udalekoak diren lurzoruen kalitatearen ikerketak egin dira, gaur egun lurzoruen kalitateari buruzko adierazpenaren zain egonik .	
7.7 Komunikazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa		Udalerri mailan ez da lurzoruen berreskurapena, airearen kalitatea eta zaratari buruzko inongo komunikazio eta prebentzio kanpainarik egiten .	
8. ARRISKUAREN ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN KUDEAKETA			
8.1. Arrisku naturalak eta teknologikoak		Hiri-gune eta gune urbanizagarrietan, Ibaizabal ibaiaren ertzetan eta Amorebieta eta Aretxabalgane ibaiadarretan, uholdeak gertatzeko arriskua dago. Eremu hauetan ikerketa hidraulikoak eginda daude eta Plazakoetxe inguruan Ibaizabal ibaiaren bideratze lanak hasita daude . Baso landaretza handiak direla eta su arriskua haundia da.	Udal eskumena <ul style="list-style-type: none"> Baso suteak ekiditeko eta kontrolatzeko neurriak ezarri. Herriko Larrialdi Plana eguneratua eduki. Beharrezkoa duten eraikin eta lokal publikoetan auto-babeserako planen garapena osatu. Udalerriko enpresetan ingurumen aldagaia sustatu. Udalaz gaindiko eskumena <ul style="list-style-type: none"> Uholdeak ekiditeko neurriak sustatu.
8.2. Arrisku naturala eta teknologikoa kudeatzea		Galdakaon arrisku larrien legedia aplikatzen zaion enpresa bat kokatzen da. Gainera, bost jarduera daude Kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratua, 16/2002 , IPPC legea aplikatzen zaiena. Galdakaok eguneratu beharreko Herriko Larrialdi Plana dauka, egoera klimatiko gogorrek, euria, izozteak, e.a., ekiditeko protokoloak dituenak, batez ere dekantatzeko baltsetan, hustubideetan, zubietan, e.a.	
8.3. Jarduera ekonomikoaren ingurumen eraginaren arriskua		Arriskua sortu dezaketen eraikuntza, leku edota instalazio publikoetan Auto-babeserako Planak daude. Ekonomia ehunean ingurugiroaren kudeaketa eta ekodiseinurako borondatezko sistemen ezarpen maila eta inguruarekiko dagoen sentsibilizazioa baxua da. Galdakaoko Udalak Nerbioi-Ibaizabalgo beste udalerriekin batera Eskualdeko Jasangarritasun Bulegotik bultzatutako jasangarritasuna suspertzeko ekimenetan parte hartzen du (Industriarako Agenda 21, Ekoefizientzia Programa , e.a)	
8.4. Jarduera ekonomikoaren kudeaketa			

BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA			
Azpiegitura	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
9. UDAL ADMINISTRAZIOAREN EROSKETA PUBLIKOA ETA INGURUMEN KUDEAKETA			
9.1. Erosketa eta kontratazioa berdea (EKPB)	☹	Ingurumeneko irizpideak ez dira era sistematiko batean erabiltzen produktu eta zerbitzuen erosketa eta kontratazioan. 2012 urtetik aurrera UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo beste udalerriekin batera erosketa eta kontratazio publiko berdea era sistematiko batean ezartzea aurreikusten da.	Udal eskumena <ul style="list-style-type: none"> Galdakaoko udalean Erosketa publikoari buruzko politika garatu eta diseinatu. Udal arduradunak eta teknikariak Erosketa publiko berdeak dituen onuren inguruan sentsibilizatu. Udalean ingurumen aldagaia txertatu. Norberaren postuan praktika egokien ezarpenerako prestatua eta sentsibilizatu dagoen korporazioa, lantalde teknikoa eta udal langileria izan. Ikastetxe, ludoteka eta elkarteen laguntzarekin ingurumen hezkuntza jarduerak areagotu.
9.2. Heziketa, sentsibilizazioa eta komunikazio eraketa eta kontratazio publiko berdearen arloan.	☹	Hirigintza sailean, Ingurugiroko teknikari bat dago. Ingurumen alderdien kudeaketa prozedurarik ez du existitzen, esaterako, udal administrazioan ingurumen aldagaia txertatzeko plan edo programarik ere ez da zehaztu baliabideen erabilera, hondakinen kudeaketa, e.a.	
9.3. Udal administrazioaren inguruan kudeaketa	☹	Urarekin, hondakinekin, mugikortasunarekin eta klima aldaketarekin erlazionaturiko sentsibilizatorako ekintzak garatzen dira eta hezkuntza komunitatea eta elkarte mugimenduarekin ekintza gehiago antolatu daitezkeela uste da.	
9.4. Heziketa, sentsibilizazioa eta komunikazio ingurumenaren arloan.	☹		
10. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU GLOBALA			
10.1. Klima aldaketari egiten zaion ekarpena.	😊	Galdakaoko udalak, Berotegi efektua sortzen duten gasen kontabilitaterako sistemak ditu bai udalerrri mailan baita udal mailan ere. Berotegi efektua eragiten duten gasen inbentarioa kalkulatu du 2009 eta 2010 urteetan, azken urtean 4,2 tCO ₂ e/biz. izan delarik, Udalsareako 15.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrien batez bestekoa baino baxuagoa, 4,4 tCO ₂ e/biz.	Udal eskumena <ul style="list-style-type: none"> Berotegi efektua sortzen duten gasak murrizteko estrategia bat ezarri. Berotegi efektua sortzen duten gas isurketen konpentsaziorako neurriak ikertu. HAPN berrian klima aldaketarako neurriak txertatu Udalaz gaindiko eskumenak
10.2. Klima aldaketaren aurkako borroka planifikatzeko berriazko tresnak	☹	Galdakaon BEG isurketen %41a garraio sektoreari dagokio, %21 etxebizitzari eta %11 merkataritza eta zerbitzuei. 2010 urtean 486 tCO ₂ e atxikitu ziren, Galdakaoko basoek hartzen duten 1.854 Ha. azalerari dagokiolarik.	

BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA			
Azplegitura	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
10.3. Hustubideen kudeaketari eta isurpen konpentsazioei lotutako berariazko ekimenak.		<p>Galdakaon ez dago klima aldaketaren aurkako inolako plan eta kudeaketarako lanabes berezirik (ordenantzak, Udal programak, Energia berriztagarrientzako ekintza plana, e.a.).</p> <p>Eraikuntzetan eta kanpoko argietan eraginkortasun energetikoari buruzko ekintzak egiten dira, baina mugikortasunaren arloan zailtasunak ikusten dira ekintzak sustatzeko.</p> <p>Galdakaon badaude isurgune bezala jarduten duten baso landaretza garrantzitsuak eta lur eremu zabalak erabilera horretara bideratu daitezkeenak, guzti honekin biomasaren bitartez karbonoa finkatzeko ahalmen altua dagoela ondorioztatu daiteke.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Informazio, komunikazio eta sentsibilizatorako ekintzak garatu.
10.4 klima aldaketari egokitzea		<p>Galdakaok badu udalerrian klima aldaketak izan dezaken eraginaren inguruko ikerketa bat, Labeinek EAE osorako egin zuena. Bertan alde zaharrearantz uholde eta tenperatura igoera arriskuak daudela agertzen da. Guzti hau HAPNaren berrikuspenean kontuan hartu beharko da. Gaur egun klima aldaketaren ondorioetara edo ahalezko eraginetara egokitzeko planik edo programarik ez dago</p>	
10.5. Sentsibilizazioa eta parte-hartzea		<p>Galdakaoko udalak eta Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoak klima aldaketarekin erlazionaturiko hezkuntza, komunikazio eta sentsibilizazio ekintzak garatu dituzte.</p> <p>Ez da ezagutzen Klima aldaketak dituen eraginei buruz herritarrek duten iritzia.</p> <p>Ez da ezagutzen ere Galdakaoko biztanleriak klima aldaketak izan ditzakeen eraginaren inguruko iritzi edo inplikazio maila zein den.</p>	








KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA			
Azpi-eremua	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
11. KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA			
11.1 Komunikazioa		<p>Udaletxeko web orrialdeak erabilera eta balorazio altuarekin eta eguneratze maila handi batekin urtean mila bat bisita baino gehiago jasotzen ditu. Egunero herriko, lurraldeko, nazioko eta estatuko prentsa, irrati eta telebistako 40 komunikabideei gutxienez 1 edo 2 berri bidaltzen zaizkie. Gazteen artean Facebook edo Twiter-en erabilera eskatzen da, beraz bide hauek erabiliko dira gazteriarri zuzentzeko. Bertako argitalpen maila altua da herrian hiru egunkari daudelarik (Crónicas, Dime eta Galdakao), hilerro ateratzen dira eta doakoak dira. Hiruretan erdara da hizkuntza nagusia, euskara gutxi agertzen da.</p>	<p>Udal eskumena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Informazioa, kexak eta iradokizunak emateko eta erantzuna jasotzeko tresnak hobetu. • Gaur egungo komunikazio tresnak erabiliz, biztanleriarentzat garrantzitsuak diren datuak emanez sentsibilizatu. • Udaleko komunikazio tresnak elebidunak izatea sustatu. • Jasangarritasunaren inguruko sentsibilizazioa bultzatu eta indartu herritarren artean. • Parte-hartze kultura eta komunitate kontzientzia finkatzen lagunduko duten egitura parte-hartzaile berrien aurrerakuntzan lan egin.
11.2. Sentsibilizazioa		<p>Informazioa harrera-lakua: galderak iradokizunak, ea. web eta telefono bidez egiten dira eta biztanleriaren arreta zerbitzu bat eratzeko aurreikuspena dago.</p> <p>Ekimen kopurua, jorratutako arloen barietatea eta publiko jasotzaileak duen aniztasuna dela eta positiboki baloratzen dira udaletik eta Eskualdeko jasangarritasun bulegotik egiten diren sentsibilizatorako ekintzak. Galdakaoako biztanleria normalean parte hartzeko eta laguntzeko prest dago nahiz eta eskainitako ekintza maila kopurua kontutan hartuta, ezinezkoa egiten den denetan parte-hartze handia egotea. Elkarteek bultzatutako ekintzetan parte-hartze maila handia dago batez ere kirola eta kulturarekin erlazionaturiko ekintzetan.</p>	
11.3. Parte-hartze kultura		<p>Auzo, jubilatua, gazte, ostalari eta merkatari elkarrekin eta herritarrekin oro har informazio batzarrak eta foroak antolatzen dira, bai hauek eskatzen dutenean, baita Udalaren ekimen propioagatik ere proiektu garrantzitsua edo herri mailan eragina izan dezaketen proiektuen kasuetan.</p>	
11.4. Parte hartzeko tresnak eta bideak		<p>Udal sail guztietan parte-hartzea eguneroko lan dinamikan kontutan hartu beharreko nahitaezko elementua bezala hartzen da. Hala ere, herritarren parte-hartzea udal kudeaketarako lanabesa bezala sustatzen jarraitzea beharrezkoa da.</p>	
11.5 Elkarten sarea (COM)		<p>Herriko elkarte sarea garrantzitsua da, Herrian 70 elkarte baino gehiago dago, kultura, kirol, emakume, e.a. elkarteak.</p>	

KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA			
Azpi-eremua	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
12. BARNE KOORDINAZIOA ETA TRASNERTSALITATEA			
12.1. Barneko koordinazioa eta komunikazioa	☹️	<p>Sail ezberdinen artean egon daiteken jardueren arteko koordinazioa eta komunikazioa eta garatutako ekintzen arteko zeharkakotasuna udal politikari eta teknikarien ekimen puntualen menpe aurkitzen da. Udal korporazioari komunikatzeko batzorde bereziak eta batzorde informatiboak eratu dira.</p> <p>Galdakaoko Udalak ez dauka Tokiko Agenda 21eko planifikazioa, koordinazioa eta jarraipena egiteko inolako mekanismo edo organo tekniko iraunkorrik. Udal mailan ere ez dago espazio eksklusiborik Tokiko Agenda 21 gaiak joratzeko.</p>	<p>Udal eskumena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tokiko Agenda 21aren Ekintza planaren kudeaketa finkatu. • Udaletxean plangintzarako egitura tekniko iraunkorrek egin arazi, bultzatu eta jarraipena egin. • Sail desberdinen arteko informaziorako eta koordinaziorako mekanismoak eta zeharkakotasuna errazten duten zerbitzuak ezarri.
12.2. Tokiko Agenda 21 kudeatzeko eredu ezartzea	☹️	<p>Galdakaoko udalak, MUGI 21 programa bitartez eta Udalsarea 21en metodologia erabiliz, urtero iraunkortasun adierazleen ebaluazio eta kalkulu programan parte hartzen du.</p> <p>Galdakaoko udalak urteroko jasangarritasunaren ebaluazio eta adierazleen kalkuluan parte hartzen du, baina ez da aztertzen zergatik ez diren betetzen ekintza planean sarturiko ekintzak.</p> <p>Tokiko Agenda 21arekin loturiko barne komunikazioa eskasa da. Ingurugiroko teknikariak jarraipen bat egiten dio baina udaletxeko eguneroko martxan sartu gabe dago. Ekintza planaren aurrerapenaren berri ere ez da eman. Plan berrian, hirigintzako batzordean aldiro egingo dira aurkezpen hauek.</p>	
12.3. Baliabide teknikoak	😊	<p>Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren zerbitzu teknikoaren zeregina Nerbioi-Ibaizabalgo eskualdea iraunkortasunaren alorrean dinamizatu, informatu, parte-hartzea bultzatu eta kontsulta eta aholkularitza zerbitzua eskaintzea da, Tokiko Agenda 21aren laguntza eskaintzen dio udalerrri, giza eragile eta eskualdeko biztanleriari oro har.</p>	
12.4. Buruzagitza politikoa	😊	<p>Tokiko Agenda 21aren berrikuspen prozesuan Alkatearen eta udalbatzaren konpromisoa handia da eta udal sail desberdinetako arduradunen parte-hartze aktiboa dago.</p>	

GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
13. BIZTANLERIA			
13.1. Lurraldearen testuinguruan kokatzea		2011an 29.049 biztanle erroldatuta zeuden Galdakaon, UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo biztanleriaren % 43,85 ordezkatzeko zutelarik. 50-60 hamarkadan, biztanleriaren gorakada bat egon zen, 80. hamarkadan geldialdi bat egon zen eta 90. hamarkadan berriz ere gorakada indartsu bat hauteman zen. Azkeneko hamarkadan berriz ere beherakada indartsu bat eman da % 1,63era jaitsiz, UT21 Nerbioi-Ibaizabal eta Bizkaian gertatuokoaren aurkakoa non biztanleria % 14,66 eta % 1,85 igo den hurrenez hurren. Aipagarria da 2010 eta 2011 urte bitartean emandako beherakada, 29.254 biztanletik 29.049 biztanlera pasatuz.	
13.2. Biztanleriaren bilakaera		Galdakaoko biztanleriaren piramidea, Bizkaikoaren antzekoa da, ERREGRESIBOA eta erraboi formakoa da. 2003 eta 2011 urte bitartean, haurtzaro indizeak beheranzko joera izan du , 2011 urtean UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo batez bestekoaren azpitik egonez eta Bizkaiko batez bestekoaren antzekoa izanik. Zahartze indizea, UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo, Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren azpitik dago.	
13.3. Egitura demografikoa		Sexu arteko banaketan, biztanleriaren % 50,68 emakumeak dira eta % 49,32a gizonak. 0 eta 19 urte bitartean gizon gehiago dago, 65 urte arte berdindu egiten da banaketa eta adintsuen artean emakume gehiago dago.	
13.4. Mugimendu naturala eta migratzailea		Galdakaoko jaiotze tasa gordinak ohiko garapena du eta hazkunde begetatiboa azken hamarkadan beti positiboa izan da.	
13.5. Populazioaren banaketa, lurraldeka.		2003 eta 2011 urte bitartean atzerriko biztanleria handitu egin da eta biztanleriaren % 2,96 ordezkatzeko du. Europako Batasunetik kanpo etorritakoak biztanleria atzeritar guztiaren % 64,73 ordezkatzeko du. Herritar gehienak % 74,14, Kurtzean bizi da, beste auzuneetan Usansolon %12,58 eta Agirre-Aperribain %8,09.	
14. GARAPEN EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA			
14.1. Eredu ekonomikoa		Galdakaon sektoreka erregistraturiko jarduera ekonomikoek zerbitzu sektorearen nagusitasuna adierazten dute % 77,09 ordezkatzeko duelarik sektoreak eta UT21 Nerbioi-Ibaizabal batez bestekoaren gainetik % 67,71 aurkitzen delarik, ondoren, industria sektoreak % 7,87 ordezkatzeko du eta eskualdeko batz bestekoaren azpitik aurkitzen da % 14,30. Eraikuntza sektorean pareko datuak aurkezten dira Galdakaon %15,03 eta UT21	Udal eskumena
14.2. Jarduera ekonomikoaren			<ul style="list-style-type: none"> Galdakaon dagoen nekazaritzarako lursailen ustiapena sustatu. Industrialde zaharkituak birordenatu. Enpresa berriak erakartzeko, lurzoru berriak bilatu, enpresa berriak



GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduerak
maila orokorra		Nerbioi-Ibaizabalen %17,99. Lehenengo sektoreak aldiz pisu baxua du.	erakartzeko edo eta daudenak lekuz aldatzeko.
14.3. Familiaren ongizatea		Galdakaon 2010 urtean lanean ziharduen biztanleriaren % 69,4 zerbitzu sektorean lan egiten zuen, % 7,41 eraikuntzan, % 2,74 industrian eta % 0,38 nekazaritza eta abeltzaintzan.	<ul style="list-style-type: none"> Berrikuntza eta elkarlanaren bitartez Industria enpresen arteko lehiakortasuna sustatu.
14.4. Lehenengo sektorea		Lehen sektoreak 2.000 urtean % 0,5eko ekarpena egin zuen balio erantsi gordinen eta % 0,2ekoa 2008 urtean, UT21 Nerbioi-Ibaizabal eta Bizkaiko batez bestekoen azpitik % 1,88 eta % 0,58 hurrenez hurren.	<ul style="list-style-type: none"> Metroa Galdakora iristea aprobetxatu bertako merkataritza eta aisialdirako eskaintzak birlekuratzeko, bertako bezeroak berreskuratuz eta kanpokoak erakarrituz.
14.5. Bizitasun eta etekin ekonomikoa		Galdakaoko industri jardueren bilakaera 2010 urteko hazkuntzatik 2011 urteko murrizketara pasatu da. Galdakaon egondako industria jardueren bariazioa 2010-ean egondako hazkuntetik 2011ean nabarmen jaistera pasatu da. Industria sektoreak balio erantsi gordinari ekarritakoa beherantz joan da azken hamarkadan eta 2001 eta 2010 urte bitartean industria sektorean lanean diharduen biztanlerian ere beherakada egon da.	<ul style="list-style-type: none"> Merkataritza eta aisialdirako eskaintza haunditzeko sustapena. Sektorearen profesionaltasuna haunditu eta teknologia berriak aplikatzea. Udaletxea eta merkatarien arteko harremana hobetu eta elkarteak sustatu sektore barruan.
14.6. Bigarren sektorearen egitura		Zerbitzu sektoreak 2001 eta 2008 urte bitartean balio erantsi gordinari egin dion ekarpena gorantz joan da, UT21 Nerbioi-Ibaizabalen eta Bizkaian gertatzen den moduan. 2001 eta 2010 urte bitartean zerbitzu sektorean lanean diharduen biztanlerian gorakada bat hauteman da eskualdeko batez bestekoaren gaineratik baina Bizkaiko batez bestekoaren azpitik.	<ul style="list-style-type: none"> Irisgarritasun eta hirigintza baldintzak hobetzen jarraitu. Ostalaritza sektorearen kalitatea eta profesionaltasuna bultzatu. Elkarteak sustatu sektore barruan.
14.7. Bizitasun eta etekin ekonomiko industrialak		Merkataritza jardueren bariazioak saldo orokor positiboa izan zuen eta Galdakaoko merkataritza txikien dentsitatea nahiko egonkor mantendu da azken bost urteetan, Bizkaikoaren maila berean eta UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo mailaren gaineratik . Metroa Galdakaora iristea aukera baten moduan hartu behar da aisialdi eta merkataritza eskaintza berkokatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> Bilboko eskaintza turistiko baten barruan, herriko turistikoki garrantzia duten puntuak aprobetxatu eta balioan jarri. Herriko ekintzaileek zerbitzu aurreratuen jarduerak ezarri ditzaten bultzatu. Langabetuak lanean sartu daitezten sustatzea, udaletxeko eta toki garapen eta lan sailak betetzen dituen funtzioak hobetuz, ahal den neurrian. Udaletxeak egiten dituen kontratuetan gizarte klausula ezarri.
14.8. Zerbitzu sektorearen egitura		Galdakaon 2005 eta 2010 urte bitartean erregistraturiko taberna eta jatetxe kopuruaren bariazioa negatiboa izan da. Ostalaritza eta jatetxeen eskaintzak kalitatezko eta Ostalaritza Eskolan oinarritutako profesionaltasunezko kokagune baterantz joateko bultzada bat behar du. Halaber, beharrezkoa ikusten da sektore honetan elkarteen sustapen eta dinamismo handiagoa.	<ul style="list-style-type: none"> Galdakaoko udaletxeko Toki Garapen sailak egindako ekintzak eta betebeharrak analizatu eta baloratu, bere erabilera ahal den neurrian hobetuz.
14.9. Bizitasun eta zerbitzuen etekin ekonomikoa			Udalaz gaindiko eskumenak
14.10. Merkataritza			<ul style="list-style-type: none"> Lehen sektorea mantentzeko neurriak hartu
14.11. Ostalaritza eta turismoa			
14.12. Beste zerbitzu batzuk			

GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduerak
14.13. Biztanleria aktiboa	☹	<p>Bilbo inguruko eskaintza turistikoan barneratzeko aukera.</p> <p>Zerbitzu aurreratuak garatzeko beharrezkoa da laguntasuna eta herriko ekintzaileek beraien jarduerak martxan jartzeko lokal eta bulegoak.</p> <p>Lanean diharduen Galdakaoko biztanleria % 49,54 da, 2001 urtean % 48,27koa zen, baina 2006 urtean % 50,28 zen beraz atzerakada bat eman da. UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo datuekin parekatuta 2001 urtean % 46,13koa zen eta gaur egun % 49,51. Bizkaiko datua 2010 urtean % 47,02aren azpitik aurkitzen da.</p> <p>Galdakaon okupatua dagoen biztanleria 2006 urtean % 65,03koa zen, UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo batez bestekoaren azpitik, % 67,88, baina Bizkaikoaren gainetik % 63,68. 2001 urtea gerostik goranzko joera izan du.</p> <p>Galdakaoko biztanleria okupatu gehienak zerbitzu sektorean lan egiten du. Bigarren lekuan industria sektorea dago eta hirugarren postuan eraikuntza sektorea. Lehenengo sektorean gero eta jende gutxiagok lan egiten du, 2010 urteko portzentajea testigantzakoa izanik.</p>	
14.14. Biztanleria okupatua	☹	<p>2011. urteko azken hiruhilabeteko datuen arabera langabetuen tasak, % 12,73, gora egin du azken bost urteetan, Bizkaiko datuaren azpitik eta UT 21 Nerbioi-Ibaizabalgo datuaren antzekoa.</p>	
14.15. Langabezia	☹	<p>Galdakaoko langabetu gehienak, 45 urte baino gehiago dituzte, % 68,25 bigarren hezkuntzako ikasketak dituzte, % 53 emakumeak dira eta % 47 gizonak.</p> <p>2011. urtean langabetuen portzentajea sektoreka % 59 izan da zerbitzu sektorean, % 21 industri sektorean, % 11 eraikuntza sektorean, % 0,01 lehen sektorean eta % 0,09k ez du lanik izan aurretik.</p> <p>Azken urteetan, lanerako herri bezala Galdakaoko gizarte segurantzako afiliazio tasa jaitsi egin da.</p>	
14.16. Kontratazioa	☹	<p>Galdakaoko Behargintzak lan eta ekonomia sustatzeko zerbitzuak eskaintzen ditu.</p>	
14.17. Laneko mugikortasuna	☹		
14.18. Enplegu eta prestakuntza politikak	☹		
15. ONGI IZATEA ETA INKLUZIO SOZIALA			
15.1. Gizarte arazoak	☹	<p>Galdakaon ez dago gizarte arazo larririk, ohikoak diren arazoak ordea bai hautematen direla, biztanleriaren mailako zaharkitzea eta giza bazterketarako geroz eta gehiago</p>	<i>Udal eskumenak</i>

GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
15.2. Gizarte zerbitzuak eta ekipamenduak		dagoen arriskua. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten hartzailen gorakada bat eman da 2009 urteko urtarrilean 137 hartzaille izatetik 2011 urteko abenduan 241 hartzailera izatera pasatuz. 2008 urtea geroztik eta 2010 urteko erdialderaino Hartzaille pentsiodunen igoera bat egon da baina azken urte honetatik hasita kopurua iraunkor mantendu da 2011 urteko abenduan 139 hartzaille daudelarik. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten % 70,13a emakumeak dira, hauetatik % 38,62 umeak bere kargu dituzten eta bakarrik dauden emakumeak dira, guraso bakarraz osatutako familiak goraka doaz.	<ul style="list-style-type: none"> • Irisgarritasun Planaren gauzapena bukatu • Lan merkatuan emakumeen aukera berdintasuna sustatu. • Berdintasunerako Plan berria egin. • Emakumeen arteko elkarreak sustatu eta berdintasunerako udal ekintzetan parte hartzea hobetu.
15.3. Udalak gizarte zerbitzuetan eta elkartasun ekintzetan egiten duen gastu ekonomikoa		Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten % 70,13a emakumeak dira, hauetatik % 38,62 umeak bere kargu dituzten eta bakarrik dauden emakumeak dira, guraso bakarraz osatutako familiak goraka doaz.	
15.4. Berariazko gizarte politikak		2011 urtean Galdakaoko biztanleria atzerritarra % 2,96 da eta ondo integratuta dago. Biztanleria atzerritarrek egindako gizarte zerbitzuen erabilera herrian duen presentziaren baliokidea da. Galdakaon 2011 eta 2008 urte bitartean biztanle bakoitzeko eurotan neurtuta ongizatera bideratutako udal aurrekontua handitu egin da. Azken urteetan nazioarteko elkartasunean gastatzen dena iraunkor mantendu da.	
15.5. Gizonezkoa eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, lanaren esparruan		Galdakaok Irisgarritasun plan bat du eta udalerriko ekipamendu eta udal eraikuntza gehienak egokituta daude.	
15.6. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, udalaren esparruan		Agortua dagoen berdintasun plan bat egon zen. 2012 urte bitartean diagnostiko berri bat egitea aurreikusten da berdintasun plan berri baten oinarri izango dena. Garatutako ekintza nagusiak, sentsibilizazioa eta zenbait eremutan (udal mailan, klubetan, kirol eta gizarte ekintzetan) emakumearen egoera ezagutzea izan da helburu nagusia eta arriskutsuak diren gunek edo puntuak ezagutzea.	
15.7. Genero berdintasuneko politikak		Gizarte ekintza sailarekin elkarlanean, tratu txarrak jasan dituzten emakumeen arretarako protokoloen garapenean lan egin da.	
15.8. Herritarren segurtasuna, gizarte kohesioa eta gizalegea		Galdakaok dituen osasun baliabideak herritarren beharrianak asetzeko nahikotzat hartzen dira nahiz eta eskaintzen diren espezialitate batzuk ez datozen bat biztanleriaren beharrianekin. Telekomunikabideen irisgarritasuna bermatua dago biztanleria guztiarentzat. Udalak Wifi doako lotura eskaintzen du Udaletxean eta Torrezabalen.	

GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
15.9. Ekipamenduak eta osasun langileak	☹️	Herrian KZ gune bi daude prestakuntzarako erabiltzen direnak batez ere.	
15.10 IKTetarako eta telekomunikazioetarako irisgarritasuna	😊		
16. HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA			
16.1. Hezkuntza eskaintza	😊	Hezkuntza eskaintza Galdakaon ondo beteta dago eta eskaintza-eskaeraren balantzea behar bezalakoa da.	Udal eskumenak
16.2. Hezkuntza eskaera	😊	Biztanleria euskalduna goraka joan da eta UT21 Nerbioi-Ibaizabal, Bizkaia eta EAeko batez bestekoaren gainetik dago. Hala ere, kalean gehien entzuten den hizkuntza erdara da eta motibazio ekintzak bultzatu behar dira euskaraz hitz egiteko. Udal euskaltegi bat dago eta azken urteetan matrikulazioek beherantz egin dute.	<ul style="list-style-type: none"> Euskara Bultzatzeko Plan Nagusia berrikusi eta plan berriari ezarriko diren neurrien bitartez, beste hezkuntza ekintza batzuen bitartez eta udaletxeko aisialdirako ekintzen bitartez euskararen erabilera sustatu.
16.3. Eskaintza eskaera balantzea	😊	Euskararen barne erabilera Plan bat dago, baita Euskara Bultzatzeko Plan Nagusia ere , aurtan berrikusi behar dena. Euskararen erabilera sustatzeko ekintza anitzak eskaintzen dira. Parte-hartze mailaren erantzuna ekintza mota eta ekintza zuzentzen zaion hartzailearen arabera izaten da, ikastetxe mailan ona da eta helduen kasuan zertxobait zailagoa.	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erabilera Planean ezarritako neurriak jarraituz Udal administrazioan euskararen erabilera normalizatu.
16.4. Herritarren heziketa emaitzak eta heziketa maila	😊	3 ludoteka daude, 3 eta 12 urte bitartekoentzat, Usansolon, Urretan eta Plazakoetxen.	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte taldeak are gehiago inplikatu euskararen aldeko konpromisoan eta udaletxetik jarraipena areagotu. Eskualdeko hizkuntza, etnografia eta kultura ondarea ezagutarazi. Kirol mota ezberdinen eskaintza handitu.
16.5. Euskalduntze maila	☹️	Erabilera kulturalerako lokal eta ekipamenduak ugariak badira ere, hauek dituzten ezaugarriak eta kokapenak ez die beti dauden beharrezkoak erantzuna ematen, batez ere auzoetan, gehienetan egokitzapen eta eraginkortasun arazoengatik. Beharrezkotzat jotzen da erabiltzeko moduan dauden lekuen inguruko erabilera hausnarketa bat egitea, aldaberatasun gehiago bilatuz.	<ul style="list-style-type: none"> Doakoak eta jendea oro har irekita dauden hiri mailako kirol-guneak sortu (skate, urban basket, ...)
16.6. Ekipamendu eta baliabideak	😊	Kultura agenda anitza eta ugaria da urte guztian zehar ekintzak antolatzen direlarik.	<ul style="list-style-type: none"> Puntako orduetara kanpo, kirol instalazioen erabilera bultzatu. Biztanlerian ohitura osasungarriak eta kirola bultzatu.
16.7. Udal politikak	😊	Elkarte eta taldeen ekimen kulturalentzako euskarria dago , auzo ezberdinetan antolatzen diren jaiak barne, non udalak euskarri ekonomiko eta teknikoekin laguntzen dituen.	<ul style="list-style-type: none"> Biztanleriari parte-hartzen duen kirol ekintzen finkapena (martxak, lasterketak, e.a.)
16.8. Euskara eta kultura	😊	Gazteei zuzendutako jarduera eta ekipamendu eskaintza eskasa eta gutxi egituratua dago.	<ul style="list-style-type: none"> Gazteentzako azpiegitura eta ekintza eskaintza diseinatu eta sustatu. Kirol ekipamenduen kudeaketa eredu zehaztu eta baita hauetan egon behar

GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
16.9. Kultura ekipamenduak	☹️	Kultur elkarte katalogo zabala dago. Gazte elkarteak aisialdiko ekintzetara zuzenduak daude. Lehen aipaturiko kultur gunez gain ez dago gazteentzako inolako kultura-gune anitzik (dantza, musika, plastika, e.a.).	duen eskaintza ere.
16.10. kultura ekintza k	☹️	Kirolerako ekipamendu eskaintza zabala dagoen arren puntako orduetan azpiegiturak beteta egoten direnez, hauen gabezia dagoen sentsazioa dago.	
16.11. Herritarren kultura dinamika	😊	Kirolarekin loturiko eskaintza ugaria eta anitza da, bai kirola osasun iturri bezala ulertua eta baita kirola federazio bezala ulertua ere, hau da, kategori ezberdinetako lehiaketa kirola. Kirol elkarteek kirol eskaintza anitza ematen dute herrian.	
16.12. Kirol ekipamenduak eta horien erabilera	😊	Biztanleriaren kirol dinamika oso altua da.	
16.13. Kirol jarduerak eta parte-hartzea	😊		
16.14. Kirol jarduerak eta partaidetza	😊		
17. ETXEBIZITZA			
17.1. Etxebizitza parkearen ezaugarriak	😊	Galdakaoko etxebizitza dentsitatea eskualdeko batez bestekoaren gainera dago eta Bizkaikoaren antzekoa da. HAPNan aurreikusitako 4.162 etxebizitzetatik 2.389 egiteko daude oraindik. Gaur egun Gorosibainen 100 etxebizitza kooperatiba gisa eraikitzen ari dira, beste 32 Usansolon kooperatiba gisa ere, 28 etxebizitza libre Zabalean, Urretan 72 kooperatiba moduan, Bengoetxen 91 kooperatiban eta 85 Iturriondon.	Udal eskumenak
17.2. Etxebizitzen antzintasuna eta zaharberritzea	😊	Udalerrriak 2001 urtean % 9,61 etxebizitza huts zituen, Bizkaiko batez bestekoaren eta UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo batez bestekoaren azpitik.	<ul style="list-style-type: none"> Eraikitako ondarea eta urbanizagarria den lurzoria mantendu, hobetu eta modu egokian erabili. Biztanleriaren beharrezanean erantzuten dion etxebizitzaren eraikitzea sustatu. Hutsik dauden etxebizitzak merkatuan jartzeko mesedegarriak izango diren politikak garatu. Babestutako apartamentuen eskaintza zabaltzea.
17.3. Higiezinaren eskaintza: etxebizitzaren eraikuntza (COM)	😊	Etxebizitza zaharkituen portzentajea 2006 urtean UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo batez bestekoaren azpitik dago eta etxebizitzaren % 2,37 bakarrik eraikin zaharkituetan zeuden 2001 urtean, UT21 Nerbioi-Ibaizabal, Bizkaia eta EAE-ko batez bestekoaren azpitik. Etxebizitza nagusien erosotasun indizea 2006 urtean % 73,51ekoa zen, Euskal Autonomia	Udalaz gairako eskumenak
			<ul style="list-style-type: none"> Etxebizitzak berriztatzerako eta eraginkortasun energetikoa lortzeko laguntza politikak indartu eta jarraipena egin.

GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
17.4. Etxebizitza beharra eta eskaera		<p>Erkidegoko, Bizkaiko eta UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo batez bestekoaren ginetik.</p> <p>2008ko uztailan egindako "Galdakao udalerriko etxebizitza eskaera eta beharrizana" ikerketaren ondorioz etxebizitza eskaera orokorra (lehenengo etxebizitza edo aldaketa) 1.900 pertsona inguru zenbatu ziren eta 738 pertsonak babes ofizialeko etxebizitza eskatu zuten. Inkestan azaldutako eskaria dela eta, hiriguneen berreskurapena eta auzoen etengabeko hobekuntzaren aldeko apustua egin behar da.</p>	
17.5. Erakunde arloa		<p>Eskatzaileen behar eta aukera ekonomikoetara egokitutako etxebizitza eskaintza ez da nahikoa batik bat daukan salneurri altua dela eta, dena dela Galdakako etxebizitzaren salneurria inguruko herrien antzekoa dela uste da.</p> <p>Alokairu merkatuaren dinamismo baxua eta salneurri altua.</p>	